



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EBAZTEN BAITA PARTZIALKI ONARTZEA ASPURUBEGI KIROL KLUB OLINPIKOKO LEHENDAKARI [REDACTED] ANDREAK BIZKAIKO EHIZA FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE BATZORDEAK EMANDAKO 2016KO ABENDUAREN 2KO EBAZPENAREN KONTRAKO 2016KO ABENDUAREN 5EKO ERREKURTSOAREN USTEZKO EZESTEAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA**

---

**Espediente-zenbakia: 43/2016**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2016ko abenduaren 26an, [REDACTED] andreak errekurtsoa aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean, Batzordea), Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoko lehendakari gisa, errekurtsio-idazkian adierazten den moduan, «*Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko abenduaren 2an emandako ebazpenaren kontra eta 2016ko uztailaren 14ko eta 2016ko irailaren 9ko ebazpenei erantzuteko helburuarekin argitaratutako Hautesle Erroldaren edukiaren kontra, 6/2016 eta 9/2016 zenbakiko espedienteetan jasoak*». Idazki horren arabera, errekurtsioa 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenaren kontra jarritako 2016ko abenduaren 5eko ustezko errekurtsioa ezetsi izanaren kontrakoa da, Hauteskunde Batzordeak ez baitu ebazpenik eman errekurtsioa aurkeztu eta 4 egun naturaleko epean, hauteskunde-araudiak egiteko eta euskal kirol-federazioek hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dituen Kultura Sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 33. artikuluko 1. eta 3. ataletan aurreikusten den moduan (aurrerantzean, 2012ko otsailaren 19ko Agindua).



**Bigarrena**.- 2017ko urtarrilaren 9an, [REDACTED]

errekurtsogile andreak beste idazki bat aurkeztu zuen. Bertan, bere errekurtsuan hainbat akats zeudela jakinarazi zuen, bertan, Arabako Federazioari, Arabako Hauteskunde Batzordeari edo Arabako Lurralde Historikoko administrazio-erakundeei erreferentzia egiten baitzien, eta ez Bizkaiko Federazioari, Bizkaiko Hauteskunde Batzordeari edo Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazio-erakundeei. Horregatik, adierazitako akatsen edo zentzu berean hauteman zitezkeen gainerako akatsen zuzenketak onartutzat jo zitezela eskatzen zuen.

Adierazitako akatsak akats materialak besterik ez direla eta errekurtsuaren xederako garrantzirik ez dutela kontuan hartuta, zuzendutzat eman dira.

**Hirugarrena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori tramitatzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion eta audientzia-tramitea eskaini zion Bizkaiko Ehiza Federazioari, Lurralde Federazio horren lehendakari hautetsiari eta Euskal Ehiza Federazioari.

**Laugarrena**.- 2017ko urtarrilaren 11n, Euskal Ehiza Federazioak alegazio-idazkia eta froga-proposamena aurkeztu zituen.

**Bosgarrena**.- Era berean, Bizkaiko Ehiza Federazioak Batzorde honen eskaerari erantzun dio eta, 2017ko otsailaren 8an, alegazio-idazki bat bidali zuen. Hura hauteskunde-organo horrek 2016ko abenduaren 2an onartutako Akordioari erantsi zaio, errekurtsu honen jatorrian dagoen akordioa.

**Seigarrena**.- Bizkaiko Ehiza Federazioko lehendakari hautetsiaren aldetik ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**



**Lehenengoa.-** Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzeko eta ebazteko*».

**Bigarrena.-** Aspurubegi Kirol Klub Olinpikoko lehendakari [REDACTED] andreak Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenarekiko desadostasuna agertu du. Hark errekursoa aurkeztu zuen 2016ko abenduaren 5ean, baina, ikusiko dugun moduan, Hauteskunde Batzordeak ez du hura berariaz ebatzi.

2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 33.1 artikuluan errekursoen ebazpenari dagokionez, xedatzen denez, Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango du, gehienez, 4 egun naturaleko epearen barnean errekursoa aurkezten denetik zenbatzen hasita. Halaber, 33. artikuluko horretako 3. atalean gaineratzen denez, errekursoa ez bada berariaz erabakitzen ezarritako epean, ezetsizat jo ahal izango da, eta, hala, zabalik geratuko da Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea.

Aztertzen ari garen errekurtsoko aurrekariaren atalean, Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena eman zuela gogorarazten da, Batzorde honen 2016ko uztailaren 14ko eta 2016ko irailaren 9ko ebazpenei erantzunez (6/2016 eta 9/2016 zenbakietako espedienteetan erantsiak). Horien bidez, Hauteskunde Batzordeak onetsitako hautesle-errola baliogabetu zen kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuan, eta IFZrik ez duten erakundeak estamentu horretako hautesle-errolatik kanporatzea erabaki zen.



Ebazpen horiei jarraikiz, Hauteskunde Batzordeak 2016ko abenduaren 2ko bere Ebazpena eman zuen, eta, guri dagokigunarekin lotuta, honako hau dio:

*«Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenarekin bat etorriz, hautesle-errola berriz argitaratzea erabaki da, kirol-elkarteen eta kirol-kluben erregistro-zenbakia eta IFZ barne.*

*(...).*

*Horregatik, hautesle-errola argitaratu da, adierazitako terminoetan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak aintzat hartuta, eta betiere Bizkaiko Foru Aldundiak finkatutako terminoetan. Horrela, bada, bost egun naturaleko epea finkatu da kasuan kasuko inpugnazioak aurkezteko, hark egindako aldaketei dagokienez bakarrik, eta ez bere momentuan egin behar liratekeenei dagokienez.*

*Hori kontuan hartuta, haren behin betiko onespenerako hauteskunde-prozesu osoa edo zati bat errepikatu beharra erabaki beharko da.*

*Ebazpen horren kontra, errekurtsoa jarri ahal izango da, Hauteskunde Batzordearen aurrean eta bi egun balioduneko epean».*

Errekurtsoarean oinarri juridikoan, Batzorde honek errekurtsoa ebazteko duen eskumena, errekurtsogileak hura jartzeko duen legitimazioa eta errekurtsoa administrazioaren isiltasunagatik ezetsi izana aipatzeaz gain, jarraian laburbiltzen diren errekurtso-arrazoiak artikulatzen dira oinarri juridiko materialetan:



1.- Lehenik eta behin, Bizkaiko Hauteskunde Batzordearen gehiegizko formalismoa salatzen da, baita hauteskunde-prozesua luzatzeko maniobrak eta hautesleen eskubideei eragindako ondorioak ere.

Horrela, Hauteskunde Batzordeak interesdunari hartutako erabakien jakinarazpen pertsonal bat egin beharra jasotzen da, betiere alderdi interesatua dela kontuan hartuta eta 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 15.6. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, baita Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak inpugnatzeko epeak ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea indarrean sartu izanaren ondorioz.

Jarraian, hauteskunde-ekitaldien argitalpen-jardunek Hauteskunde Batzordeko idazkariaren diligentziarik ez dutela berresten da –errekurtsoaren legezko epeak abian jartzea egiaztatzen duen argitalpenari fede emanetz–, hauteskunde-batzordearen errekurtsoa jartzeko eskubideak kaltetzeko xede garbiarekin, Batzordeak Batzorde honen akordioak denboran luzatzeaz gain, jai-egunetara arte itxaron baitu kasuan kasuko ebazpena argitaratzeko.

Zentzu horretan, ebazpenaren eguna abenduaren 2a, ostirala, dela jakinarazi da, baita egun horretan oraindik informaziorik argitaratu ez zela ere. Gainera, egun hori abenduaren 6tik eta 8tik gertu zegoela adierazi du, jaiegunak, alegia. Nolanahi ere, informazioa eskuratu zen egunean bertan, hau da, 2016ko abenduaren 5ean, errekurtsogileak 2016ko abenduaren 2ko Erabakiaren kontrako errekurtsoa jarri zuen.

Oro har, Hauteskunde Batzordearen jarduketak zorroztasunik izan ez duela salatzen da, baina, aldi berean, formalismoa gehiegizkoa izan da eta asmo oztopatzaileekin jardun du Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoaren lehendakariari, 2016ko abenduaren 11ko idazki bidez, aurkeztutako



errekurtsoaren edukia ebatzi ahal izateko honako dokumentu hauek aurkez zitzala eskatu zitzaionean:

1) Jatorrizkoa, helbide elektronikoz.

2) Klubeko idazkariaren jatorrizko ziurtagiria, hau da, lehendakariaren izaera egiaztatuko duena, haren hautaketa-eguna eta izendatze-aktaren kopia erkatua barne.

3) Izendapen hari jakinarazi izana egiaztatzen duen Kirol Elkarten Erregistroari dagokion ziurtagiria.

4) Xede horrekin deitutako saioan, errekurtsoa aurkeztu izana frogatzen duen gobernu-organoaren erabakiaren kopia erkatua.

Errekurtsogileak eskakizun horiei erantzun zien eta bere Klubeko lehendakari-izaera egiaztatu zuen. Bere ustez, horrek ordezkutzen dituen interesen defentsa gauzatzeko gaitasuna ematen dio, eta, gainera, informazio hori Hauteskunde Batzordearen eskuetara iritsi zen dagoeneko, honako bide hauetatik:

a) Aurrez, eta federazioaren hauteskunde hauetako aurreko errekurtsoetan, alderdi horiek egiaztatu zituen dagoeneko.

b) Hauteskunde Batzordeak bere kluba erroldan txertatuta zuenez, hark Aspurbegi Klubaren barnean zuen baldintza organikoari buruzko informazioa eskura zezakeelako.

**2.-** Bestalde, erabakiak argitaratzeko eguna bermatzea Hauteskunde Batzordeari dagokiola argudiatu du, publikitatea errazteko eta dagozkion gizarte-eskubideak gauzatzeko helburuarekin, hain zuzen ere, hauteskunde-



prozesua eta jardunak hedatzeko helburuarekin; kasu honetan, hori ez zen egiaztatu ekitaldia argitaratu zenean, ezta bitartekoak ere (taula, federazioaren bitarteko elektronikoak, telematikoak eta informatikoak, prentsa bidezko argitalpena, posta elektronikoko bidezko jakinarazpena eta abar).

Argudio horiek guztiek eta hauteskunde-ekitaldien hedapenari buruzko legezko erreferentziek helburu bat dute, 2016ko abenduaren 5ean aurkeztutako 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenaren kontrako errekurtsua bi egun balioduneko epean aurkeztu zela jasota gera dadila, alegia, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 32. artikuluan jasotzen den moduan.

Gainera, alegazio hori egiten da, era berean, erabakiaren publizitate formalaren egintzan irregulartasun bat edo akats nabarmen bat dagoela justifikatzeko, zeinaren ondorioz hartzaileak babesik gabe geratzen baitira. Horrenbestez, errekurtsua jartzen duen aldeak ulertzen duenez, baliogabetasun zigorpean, argitaratzeko egintza errepikatu egin behar da, bertan argitalpen-eguna (berria) adieraziz, eta gainerako eragindunentzat errekurtsua jartzeko epe berria irekiz.

Horrenbestez, honela amaitzen du errekurtsogileak: *«argitalpen-jarduna eten edo 2016ko abenduaren 2ko ebazpenaren edo erroldaren kontra aurkeztutako epez kanpoko erreklamazio guztiak onartu beharko lirateke, akatsak ezin baitio hura eragin duenari mesede egin»*.

**3.-** Errekurtsua aurkeztu izanaren beste arrazoi bat argitaratutako hautesle-erroldaren edukiarekin lotuta dago.

Errekurtsuan hautesle-erroldak duen garrantzia azpimarratzen da, izan ere, hautetsi eta hautesle izateko betekizunak betetzen dituztenen erregistro ofiziala da eta, federazioko hauteskunderen kasuan, hautesleria estamentutan banatzea ahalbidetzen du eta, horien barnean, sekziotan. Gainera, Batzar



Nagusiko hautesleria konfiguratzeko du lurraldeko federaziotan eta Hauteskunde Batzardeak Batzarrari dagokion kide kopurua finkatzeko erreferentziazko esparrua da.

Horregatik guztiagatik, errolda behar bezala konfiguratzeko funtsezkoa da, eta gero zehaztasuna eta objetibotasuna erroldak bete beharreko bermeak dira. Horrela, erregistro horretan hauteskunde-gaitasun aktiboaren betekizun positibo eta negatiboak betetzen dituzten pertsona guztiak (fisiko nahiz juridikoak) agertu behar dira, bazterkeriarik gabe.

Hautesle-errolda Hauteskunde Batzardeak onartu behar duenez hauteskunde-prozesua abiatzeko unean, bertako kide izateko betekizunak bete egin behar dira, hauteskunde-prozesuaren une horri dagokionez, erroldan dagozkion inpugnazioen edo haren aurka egokitzen jotzen diren alegazioak egitearen ondorioz egiten diren zuzenketak alde batera utzita.

Ustez, Hauteskunde Batzardearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenak 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan zehaztutako baldintzetara egokitzeko asmoa izan arren, eta, beraz, aurreko errolda baliogabetu zuten Kirol Justiziako Euskal Batzardearen ebazpenak bete arren, errekurtsogilearen ustez ez da hori gertatzen, IFZ zenbakiari dagokionez, Hauteskunde Batzardeak 6 klub kanporatu baititu baldintza hori ez betetzeagatik; dena den, gainerako guztiak onartu ditu, hauteskunde-deialdia egin zen momentuan IFZ izan behararen baldintza hori betetzen zuten ala ez egiaztatu gabe, erroldan sartu ahal izateko ezinbesteko baldintza.

Zentzu horretan, errekurtsogileak dio hauteskunde-erroldak legez osatuta egon behar zuen momentuan klub batzuek IFZrik ez zutela eta hura beranduago bereganatu zutela, hauteskunde-prozesua abian jarri ostean, errolda dagoeneko itxita zegoela eta hura eratu eta onetsi zen momentuan;





horrenbestez, elkarte horiek ezin izango zuten 2016ko deialdirako hautesle-errolan sartu.

Hori dela-eta, errekurtsogileak frogabide jakin batzuk gauza ditzala proposatzen dio Batzordeari, erroldan txertatu ahal izateko hauteskunde-prozesuko momentuan IFZri dagokion baldintza zein klubek betetzen zuten zehazteko eta IFZ zenbakia geroago nor bereganatu zuen egiaztatzeko.

Azkenik, errekurtsogilea ez dago ados 2016ko abenduaren 2ko Erabakiaren amaieran gaineratzen den eranskinarekin, inpugnazioak aurkezteko epea irekitzearen helburuari dagokionez, alegia: «...haren aldaketei dagokienez...».

Errekurtsogileak zera ulertzen du, errolda partzialki baliogabetu ostean, hura berriz argitaratzeak inpugnazioetarako beste epe bat irekitzen duela, objektiboki mugatuta ez dagoena eta, horrela, berriz argitaratutako errolda legezko eskakizunetara eta formalitateetara guztiz egokitzen dela egiaztatzeko.

4.- Azkenik, errekurtsuan Hauteskunde Batzordeak egiten duen hauteskunde-egintzen kontserbazio-printzipioaren aplikazioarekiko desadostasuna agertzen da.

Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenak honako hau zehazten du errolda berriari eta haren behin betiko onespeneri dagokionez: «hauteskunde-prozesu osoa edo zati bat errepikatu beharra edo ez errepikatu beharra erabakiko da».

Errekurtsogilearen ustez, «hauteskunde-prozesua hautesle-errolda partziala (Klubak) egin arte atzeratu izanak gero egindako guztia errepikatu beharra eragin du, are gehiago federazio-organoen hauteskundeek horien konfirmazio zuzena bete behar dutela kontuan hartuta, eta Hauteskunde



*Batzordeak ez du hori egiaztatu. Horrela ez bada, hautesleen borondatea faltsutzen dela ulertzen da».*

Adierazitako guztiaren arabera, errekurtsioan honakoa eskatzen da:

*«A) Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko ebazpenari dagokionez, honako hau erabaki da:*

*1) Zenbaketaren hasierako eguna behar bezala zehaztea, izan ere, ebazpenaren data ez da argitaratzen dena zehazki, izan ere, gutxienez, Hauteskunde Batzordeak berak bere egutegian berariaz baliogabe modura deklaraturako epeei dagokienez nahasmen edo gainjartzea ageri da.*

*2) Edukiari dagokionez: Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakia bete dadila, hauteskunde-prozesuaren barnean hautesle-errolda eratzeko unearen ondorengo egintza guztiak errepikatzeko egintza modura adieraziz, bereziki, eta beste batzuen kalterik gabe, dagokion Batzarra hautatzeari eta Federazioko presidentea hautatzeari dagokienez.*

*B) Hautesle-erroldari dagokionez: Hura berriz egin dadila, 2012ko Aginduaren 22. artikuluan pertsona fisikoei dagozkien eserlekuen kasuan eskatzen diren betekizunak txertatuz. Gainera, Hauteskunde Batzordeak modu berezian egiaztatu beharko du bertan txertaturako klubek hauteskunde-deialdia egin zen egunean kasuan kasuko IFZ zutela.*

*C) Hauteskunde Batzordeak hautesle-errolda hau behar bezala osatu dezan, hark honako hauek eska ditzala erabaki dadila:*



*a) huraosatzen duten guztiei kasuan kasuko IFZ zenbakiaren eskaera- eta eskuratzeko data egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria eskatzea, batez ere "G958..." seriekoei, betiere hautesle-eroldan gaineratu edo bertatik kanporatu ahal izateko.*

*b) Hauteskunde Batzordeak Foru Ogasunari, gutxienez, "G958..." serieko Klubei edo elkarteei dagokien ziurtagiri kolektiboa eska diezaiela, hauteskunde-prozesua abiarazi zen egunean elkarte horiek IFZ zenbakia zuten ala ez jakinarazteko helburuarekin.*

*c) Hauteskunde Batzordeak dagozkion egiaztagiririk izan ditzala, 2016ko hauteskunde-prozesua abiarazi zen egunean IFZ zenbakia zein elkartek ez zuten zehazteko helburuarekin».*

**Hirugarrena.**- Dagokien kirol-federazioei esleitutako entzunaldi-izapideari dagokionez, eta ordena kronologiko bati jarraikiz, lehenik eta behin Euskadiko Ehiza Federazioaren alegazioen eta frogaren proposatzeko idazkia jaso zen, 2017ko urtarrilaren 11n.

Idazki horretan zera adierazten da lehenik eta behin, Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-prozesua atzeratzeko borondatea agertu duela, eta prozesu osoan zehar mantendu behar den fedeararen eta konfiantzaren kontra jardun duela.

Horren ostean, Bizkaiko Ehiza Federazioak prozesua atzeratu izanak euskal federazioak gauzatu beharreko hauteskunde-prozesuari eragingo diola zehazten da, hura izapidetu ahal izateko, lurraldeko federazioen prozesuak amaitu behar baitira lehenengo.



Aztertutako errekurtsotan artikulatutako inpugnazio-arrazoiaren balorazioari dagokionez, euskal federazioak bere egin dituen Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoaren argudioak, eta horiek laburbildu dituen, errekurtsotako oinarritzat hartzen dituen funts juridikoei atxikitzen dela adierazteko.

Baina hark ez dituen alderdi errekurtsogilearen alegazioak bakarrik errepikatzen, horrez gain, Hauteskunde Batzordeak bere borondatea adierazteko moduari erreferentzia egiten dion eta errekurtsotako dagokion egintzaren baliotasunari eragingo liokeen beste alderdi bati erreferentzia egiten baitio.

Lurralde-federazioaren Hauteskunde Batzordeak lehendakari bat, idazkari bat eta bokal bat dituela kontuan hartuta, 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena lehendakariak bakarrik sinatu duela azpimarratzen du, eta hori ez dator bat 2012ko otsailaren 19ko Aginduan xedatutakoarekin, bertan ez baita Hauteskunde Batzordearen eraketa jasotzen, ezta bozketaren emaitza eta bertaratuen sinadurak ere, eta, beraz, egintza erabat deuseza izango litzateke.

Horregatik guztiagatik, euskal federazioak Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoak egindako eskaerak errepikatzen dituen funtsean, gaiaren funtsari dagokionez nahiz hautesle-erroldan gaineratutako hautesleek hauteskunde-prozesua abiarazi zen momentuan horretarako lege-betekizunak betetzen zizutela egiaztatzeko probari dagokionez.

**Laugarrena.**- Azkenik, Bizkaiko Ehiza Federazioak alegazio-idazki bat aurkeztu du 2017ko otsailaren 8an, Hauteskunde Batzordearen bitartez. Bertan, Bizkaiko eta Arabako federazioen hauteskunde-prozesuen kontra jarritako errekurtsotako guztiak euskal federazioak bideratu dituela alegatzen da lehenerik eta behin, zuzendaritza juridiko berean oinarrituz –orain aztertzen ari den errekurtsotako akatsetatik ondorioztatu daitekeen moduan–; gainera, horiek



euskal federazioko lehendakariaren agintaldia luzatzea dute helburu, lau urtez behin errepikatzen den estrategia batean. Gainera, honako hau dio:

1.- Lehenik eta behin, errekurtsogileak ez du frogatu klubeko ordezkaria denik eta ez du aurkeztu errekurtsorori egiteko erabakia hartu zuen gobernu-organoren (hau da, klubaren batzar orokorraren) akordioaren kopiari.

Alegazio horrek 2016ko abenduaren 5ean Hauteskunde Batzordearen aurrean jarritako errekurtsorari egiten dio erreferentzia, hauteskunde-organoren 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenaren kontrako errekurtsorari, alegia; hori argi eta garbi ikus daiteke alegazio-idazkian egiten den Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoko lehendakariari egindako eskakizunaren aipamenean (2016ko abenduaren 11n jakinarazi zen, errekerituak berretsi duen moduan, eta Hauteskunde Batzordeak ez du momentu bakar batean ere ukatzen). Izan ere, hari hainbat dokumentu aurkez ditzala eskatu zaio haren ordezkapena frogatzeko, eta idazki horretan argi eta garbi adierazten da, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, errekurtsoa jakinarazpenik egin gabe artxibatuko dela.

Aurreko errekerimenduari kasu zipitzik ere ez egiteaz gain, Hauteskunde Batzordeari errekurtsoa ebazteko aukerarik eman ez zaiola adierazten da, «*hura ezagutu izan balitz, egindako akatsak zuzenduko liratekeela*» esanez.

Hauteskunde Batzordearen ustez, «*errekurtsoak ez du aurrera jarraitu behar, instantzian artxibatu egin baita eskatutako betebeharrak egiaztatu ez izanagatik*». Era berean, klub errekurtsogileak «*bere errekurtsoan eskatzen dena egiaztatzen ez duela dio, baita klub horrek IFZ bat eta hura lortu zeneko data dituela ere, eta dokumentu horren kopia helarazi du, esandakoa bere IFZ dela esanez, bestelako azalpenik edo egiaztapenik eman gabe*».



2.- Errekurtsoaren funtsari dagokionez, Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzardeak Batzardearen ebazpenak bete zituela alegatu du. Horrela, bada, errolda berrikusteari ekin dio, IFZrik gabeko klub guztiak ezabatuz.

Horrenbestez, kirol-kluben edo kirol-erakundeen onartutako estamentuen erroldan IFZ duten pertsona juridikoak bakarrik gaineratu direla sostengatzen du. Era berean, erakunde errekurtsogilearen planteamendua –IFZ hori hauteskundeen hasieran izan behar zela jasotzen duena– berria dela adierazi du, eta berrespen horrekin, Hauteskunde Batzardeak horrelako egiaztapenik egin ez duela aitortzen da inplizituki edo tazituki, IFZ duten pertsona juridiko guztiak gaineratuz, hura bereganatu den momentua dena dela.

Edonola ere, bere desadostasuna agertu du berriz ere, eta 6/2016 eta 9/2016 zenbakiko espedienteetan egindako alegazioak errepikatu ditu, lurraldeko federazio horren kirol-kluben eta kirol-erakundeen erroldan hura osatzen duten pertsona juridikoen IFZ adierazi behar baita, Kultura Kontseilariaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikuluan zehaztutakoa eta Batzarde honek zentzu horretan erabaki duena dena dela.

Haren arabera, errekurtsoa onartzeko edo ukatzeko araudi guztia aztertu behar da bere osotasunean, eta aipatutako 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 24. artikulua aipatzen du, errolda egiterakoan hauteskunde-batzordeak emandako lizentzia guztiak kontuan hartu behar dituela argudiatzeko, era egokian edo desegokian eman ziren baloratu gabe, IFZ federazioan izena emateko baldintza bat balitz (eta ez da).

Eta, haren ustez, hori ez da baldintza bat 16/2006 Dekretuaren 23. eta 25.3 artikuluetan kirol-federazio batean sartzeko eta lizentzia eskuratzeko IFZ



eskuratzea ezinbestekoa denik ebazten ez delako (16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena). Era berean, hauteskunde-prozesuetan hautesle eta hautagai izateko kirol-klub eta kirol-erakundeei ezartzen zaizkien baldintzen artean ere ez da halakorik eskatzen, aipatutako 16/2006 Dekretuaren 79. artikulua araberera.

Azkenik, eta kirol-klubei eta kirol-erakundeei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuaren 6. eta 8. artikuluekin bat etorriz, IFZ alde aurretik lortzea ez da beharrezkoa Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeko eta nortasun juridikoa bereganatzeko.

Horrenbestez, ondorioztatzen du 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan pertsona juridiko bat dagokion erroldan ager dadin IFZ izatearen betebeharrari buruz egiten den erreferentzia bakarra ez dela aski betekizun hori eskatzeko.

**3.-** Azken alegazioan, errekurtsolari dagokion Ebazpena Batzordeak bere momentuan adostutakoarekin lotuta dagoela jasotzen da, bertan, IFZ nahitaez argitaratu beharreko datua dela adierazten baitzen, eta horregatik egin da, hain zuzen ere, errolda deuseztatzeko deklarazioa.

Hauteskunde Batzordearen ustez, Aspurubegi Kirol Klub Olinpikoaren gaur egungo errekurtsok beste oztopo bat agertzen da, erroldan sartu ahal izateko baldintzetan islatzen ez den beste betekizun bat zehaztu nahi baita: kasuan kasuko Klubak IFZ izan dezala eta hura hauteskundeak abiarazi aurrekoa izan dadila. Hori guztia erroldako klub guztiak federazioko kide direla, bertan gutxienez bi denboralditan inskribatuta egon direla eta denboraldi horretan zehar hauteskundeei buruzko erregelamenduan eskatutako gutxienerako lizentzia-kopurua izapidetu dutela zalantzan jarri gabe.



Hauteskunde Batzordearentzat, interpretazio hori zuzenbidearen kontrakoa da, ez baitzen Aspurbegi Klubaren aurreko errekurtsioan eskatu, eta Batzorde honek ere ez aurreko ebazpenetan.

Hauteskunde Batzordeak honako arrazoi hauek eman ditu zentzu horretan, bere alegazio-idazkian:

*«Hauteskunde Batzorde honek ez du klubaren eskubide osoko kide-baldintza berrikusteko eskumenik; bestalde, **ez da ukatzen horrela ez direnik**, eta beraz, federazioaren artxiboetan oinarrituz eta Kirol Justiziako Euskal Batzordeak eskatutakoarekin bat etorrituz, baldintzak betetzen dituztenen kasuan, 2012ko otsailaren 19ko Aginduak publikitate gisa eskatzen dituen datuak islatzen dira.*

*Klub-lizentziak izapidetzen eta ematen dituzten kasuan kasuko federazioen administrazio-zerbitzuei lizentziarik ez inskribatzeko edo izapidetzeko eskatu behar zaie, horiek dagokien txartel fiskala aurkezten ez badute, hori beharrezkoa ez izan arren (...).*

*Bi urtetan baino gehiagotan kide izan badira eta horien lizentziak izapidetzea onartzen bada, NAN (hura iraungita egon ala ez) edo IFZ eskuratzeko unea ez da beste betekizun baten gisa hartuko, kirol-federazioen 16/2006 Dekretuaren aldaketa bidez hala arautzen denean salbu, eta ez maila baxuagoko agindu baten bidez, hark lege mailako arauetan babesten ez diren baldintzak eta arauak txertatzen baititu, web bidezko argitalpen irekien kasuan adibidez, baita datu pertsonalak babesteko legea izan arren. Hauteskunde Batzordeak ez zuen hori egin pertsona fisikoen kasuan, eta hasiera batean*





*errekurtsoa aurkeztu arren, bigarren itzuli honetan ez da gehiago nabarmendu; horrekin zera esan nahi dugu, hauteskunde-batzordearen eginkizun korapilatsuari arkitektura juridiko eskasa gehitu behar diogula, maila altuagoko arauak IFZ zuzenbide osoko elementu integratzaile gisa eskatu ez arren, maila baxuagoko batek hautesle-erroidan hala jasotzea eskatzen baitute».*

Horregatik guztiagatik, Hauteskunde Batzordearen ustez, errekurtsoa ezetsi egin behar da osorik.

**Bosgarrena.-** Errekurtsuan eta espediente hau osatzen duten idatzi ezberdinetan agertzen diren alegazioetatik iradokitzen denez, asko dira Batzorde honek aztertu behar dituen alderdiak aldeek eta hirugarren interesatuek planteatu dituzten guztiei erantzuna emateko.

Horietako lehenengoa Bizkaiko federazioaren Hauteskunde Batzordeak alegatzen duena da, haren bidez zera eskatu baitzitzaion [REDACTED] errekurtsogile andreaki (2016ko azaroaren 11n, arestian ikusi dugun moduan), bere klubaren ordezkari-izaera egiazta zezala, baita Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoaren gobernu-organoaren akordioa ere, errekurtsoa jarri izana egiaztatzen duena.

Eskaera horretan 10 egun balioduneko epea ematen zen hari erantzuteko, eta, epe hori igaro eta errekurtsuan adierazitako gabezia formalak konpontzen ez baziren, hura jakinarazpenik egin gabe artxibatuko zela ohartarazten zen.

Errekerimenduari kasu zipitzik egin ez zitzaionez, Hauteskunde Batzordeak errekurtsoa artxibatu zuela alegatzen du, Hauteskunde Batzordeak hura artxibatu izanaren berriazko ebazpenik ez egon arren (errekerimenduan



argi eta garbi jakinarazten zen errekurtsua inolako jakinarazpenik gabe artxibatuko zela).

Errekerimendua kontuan hartu izan balitz, errekurtsua lehen auzialdian ebatziko zela gaineratzen du, baita «*kasuan kasuko gabeziak konpondu izan balitu hura ezagutu egingo zela*» ere; berrespen hori kakotx artean gaineratu dugu, haren bidez, 2016ko abenduaren 2ko akordioak zuzendu beharreko gabezia batzuk zituela ulertarazten dela baitirudi.

Batzorde honek bi zehaztapen egin behar ditu Hauteskunde Batzordearen alegazioei dagokienez: 1) Batetik, egia da, klub errekurtsogile gisa dioen moduan, Hauteskunde Batzordeak gehiegizko formalismoarekin jarduten duela Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoak bere errekurtsua onartu ahal izateko aurkeztu behar dituen dokumentuak zehazten dituenean. Errekurtsua onartzeko nahikoa da hura aurkeztu duen pertsona Klub errekurtsogilearen lehendakaria dela egiaztatzea, hura baita, kirol-kluben eta kirol-elkarteen ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuko 33. artikularen arabera, klubaren ordezkari gaitzatzen duen pertsona; eta 2) [REDACTED] andreak Hauteskunde Batzordearen errekerimenduari erantzun ziola, klub errekurtsogilearen lehendakaria zela egiaztatuz; dena den, Hauteskunde Batzordeak bazekien hori, aldeztu aurretiko beste errekurtsu batzuetan ere egiaztatu baitzen baldintza hori, eta horietan ez ziren beste eskakizun batzuk eskatu.

Edonola ere, Bizkaiko Federazioaren Hauteskunde Batzordearen alegazio-idazkian ez da adierazten, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 33.1. artikularen arabera, Hauteskunde Batzordeak ebazpena gehienez ere 4 egun naturaleko epean emango duenik, errekurtsua aurkezten denetik kontatzen hasita. 33. artikuluko 3. atalean adierazten den moduan, errekurtsua zehaztutako epean berariaz ebazten ez bada, hura ezetsi egin ahal izango da, eta horrela zabalik geratzen da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen bidea.



Kasu honetan, Hauteskunde Batzordeak ez du Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoaren lehendakariaren errekurtoa horretarako zehaztutako epean ebazten, hura ustez ezetsi ostean eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean errekurtoa jartzeko bidea zabaldu ostean baizik, errekurtoa ebazteko epea kontuan hartuz gero, alegazio-idazkian aipatzen den konpontze-eskaera orduan jakinarazten baitu (errekerimendua 2016ko abenduaren 11n jakinarazi zela gogorarazten dugu berriz ere).

Alderdi horiek kontuan hartuta, eta Batzordearen aurreko errekurtoa hasierako errekurtoa ustez ezetsi ostean aurkeztu denez, Batzorde honek ezin du onartu Hauteskunde Batzordeak egin duen errekurtoaren artxiboa, eta errekurtoaren arrazoiak ezagutu nahi ditu, baita espedientetik ondorioztatzen diren gainerako alderdiak ere.

Azkenik, [REDACTED] andreak Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoko lehendakaria dela egiaztatu du errekurto honen egoitzan, errekurtoa jartzeko eskumena ematen dion baldintza.

Horrenbestez, Arabako Ehiza Federazioko Hauteskunde Batzordeak egindako alegazioak ezin dira onartu.

**Seigarrena**.- Aztertu beharreko bigarren alderdia Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena argitaratu den eguna da, baita klub errekurtsogilearen asmoa ere, eta ez 2016ko abenduaren 5ean aurkeztutako bere errekurtoa epean jarri zela kontuan har dadin bakarrik, baita Hauteskunde Batzordeak epea zein egunetan abiarazi zuen zehaztu dezan ere, ebazpenaren eguna ez baita hura argitaratu zenekoa (alderdi errekurtsogilearen arabera, Hauteskunde Batzordearen ebazpen hori ez zen txertatu federazioaren webgunean 2016ko abenduaren 2an, eta 2016ko



abenduaren 5ean izan zuen haren berri, zehazten ez den bitarteko baten bidez).

Bigarren alderdi horri dagokionez, honela amaitzen du errekurtsogileak: *«Argitalpena eten edo 2016ko abenduaren 2ko ebazpenaren edo erroldaren kontra aurkeztutako erreklamazio oro epez kanpo onartu beharko litzateke, akatsak ezin baitio mesede egin hura eragin duenari».*

Egia esan, Hauteskunde Batzordeak igorritako espedientearen ez da gaineratzen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena argitaratu zen eguna zehazten duen dokumenturik, eta Hauteskunde Batzordearen alegazio-idazkian ere ez da alderdi hori argitzea ahalbidetzen duen errekurtsogilearen errekurtsio-arrazoirik aipatzen.

Halere, errekurtsotik argi eta garbi ondorioztatzen da Hauteskunde Batzordeak kasuan kasuko Ebazpena hedatu duela, zehaztu gabeko data batean izan arren; bestela, ezin da azaldu Aspurbegi Kirol Klub Olinpikoak haren berri izan zuenik, eta Batzordeak ez du inolako arrazoirik ikusten, oro har, *«argitaratze-egintza»* gisa kalifikatu dena balio gabetzeko.

Argitalpenean hori ez zehaztu izanak hauteskunde-prozesuan interesa zuen edozein pertsona fisikori edo juridikori babesik eza eragin badio, pertsona horiek, hala badagokio, egintzaren nolabaiteko balioezintasuna eskatu ahal izango dute, baita errekurtsioa adierazitako arrazoiagatik izapidetu dadila ere, baina hori gertatu ez denez, errekurtsogileak ezin du legaltasun horren defendatzaile bihurtu, eta ezin du errekurtsioak planteatzen duen irismen orokorra eskatu.

2016ko abenduaren 5ean aurkeztutako errekurtsioari dagokionez, hura zehaztutako bi egun balioduneko epean aurkeztutzat joko da. Era berean,



Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordeak ez du errekurtsua albo batera utzi hura epez kanpo aurkeztu dela uste izanagatik, eta, beraz, zentzu horretan ez zaio alderdi errekurtsogilearen jarrera juridikoari eragin.

**Zazpigarrena**.- Argitaratutako hautesle-errolaren edukiari dagokionez, kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuko Hauteskunde Batzordeak berriz onartutako errolda –Batzorde honek 6/2016 eta 9/2016 espedienteetan onartutako ebazpenen exekuziorako– ebazpen horietara eta hauteskunde-arauetara egokitzen den zehaztea da kontua.

Lehenik eta behin, alderdi honek ez du errekurtsogilearen jarrera partekatzen, hauteskunde-egin berri honekin (errolda berriaren onespenarekin), haren argitalpenak erabateko inpugnazio-epe berri bat irekitzen duela eta bertan muga objektiborik ez dagoela esatean; izan ere, hauteskunde-egintza horiek kasu batzuetan bakarrik errekurritu daitezkeela uste dugu, horiek egintza irmo eta adostu bihurtzen ez direnean, guztiz edo partzialki.

Horrekin zera esan nahi dugu, bere momentuan hautesle-errolda onartu zenean, haren kontra bideratutako errekurtsuak Batzordeak epaitutako eduki zehatz bat bazuen, errolda hori irmo eta adostua bihurtzen dela errekurtsuaren xede izan ez diren alderdietan. Hori dela-eta, ezin izango dira eragotzi hautesle-errolda berri batekin, hura Batzordeak onartutako ebazpenak gauzatzeko helburu bakarrarekin onartuko baita.

Alderdi errekurtsogilearen interpretazioa onartuz gero, hauteskunde-prozesua segurtasun juridikorik ezaren egoeran egongo litzateke erabat, eta horixe da, hain zuzen ere, epe barruan errekurritzen ez diren administrazio-egintzak irmo eta adostu bihurtzen direla jasotzen duen printzipioa aplikatzearen helburua.



Bestalde, Hauteskunde Batzordeak egin duen Batzordeak onartutako ebazpenen -2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharrari dagokionez, pertsona juridikoak inskribatzean txertatu behar diren datuei buruzkoan- aplikazio formalistarekin beste balorazio bat egin behar da, hura errolda berri bat onartzera mugatzen baita, eta, bertan, hura osatzen duten kirol-kluben eta kirol-elkarteen IFZ gaineratu besterik ez da egiten (hori bai, IFZ aurkeztu ez duten klubak erroldatik kanporatuz), alegazio-idazkitik ondorioztatzen den moduan, IFZ hori izan beharra hauteskunde-prozesua abiarazi eta errolda egin zen momentuan betetzen zen ala ez egiaztatu gabe.

Errekurtsogileak alegatzen duen moduan, erroldan parte hartzeko eskatzen ziren betebeharrak guztiak -baita IFZ izan beharra ere, pertsona juridikoen kasuan- hauteskunde-prozesua abiaraztean eta errolda onartzeko momentuan bete behar ziren.

Batzorde honek onartutako ebazpenak ez dira betetzen beste errolda bat eginez eta kirol-klub edo kirol-elkarte baten IFZ gehituz, alderdi errekursogileak berretsi eta Hauteskunde Batzordeak onartu duen moduan, hura hauteskunde-prozesua abian jarri ostean lortu bada, errolda dagoeneko itxita dagoenean eta hura osatu eta onartu behar denean, alegia.

Horrenbestez, hauteskunde-prozesua abiaraztean eta hautesle-errolda prestatzeko momentuan IFZ zenbakirik ez zuten kirol-klubak edo kirol-elkartek ezin ziren hautesle-erroldan txertatu, eta, horrenbestez, ezin zuten erroldan txertatu izanak eragindako hauteskunde-araudiak aitortutako eskubideen titularrak izan.

Betekizun hori betetzen zen edo ez bere momentuan egiaztatu behar zen, eta Batzorde honek orain onartuko duen ebazpenaren ondorioz gauzatu beharko da Hauteskunde Batzordearen aldetik, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 6.1. artikulua dioen moduan, «*Federazio bakoitzaren Hauteskunde*



*Batzordea da hauteskunde-prozesua bultzatzeko erakunde arduraduna; bide batez, berari dagokio prozesua modu egokian burutzea, azken batean bermatu egin beharko baitu hauteskunde-prozesua Zuzenbidearen arabera dela», horretarako, eta bereziki hautesle-errola onartzeko, lurraldeko edo Euskadiko federazioaren administrazio-organoaren laguntza jaso badaiteke ere (2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 24. artikulua).*

Zentzu horretan, ez da onartuko errekurtsogileak egindako frogaproposamena –Euskadiko Ehiza Federazioa bat dator horrekin–, haren arabera, Batzorde honek hautesle-errola gehitutako kirol-klubek eta kirol-elkartek beren IFZ noiz bereganatu zuten egiaztatzea eskatzen baitzen, Bizkaiko Foru Ogasunarekin eta Hauteskunde Batzordearekin batera.

Proba-proposamen bat egin dadila eskatzea Bizkaiko lurraldeko federazioaren hauteskunde-prozesuan kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuko hautesle-errola organo kolegiatu honek egin dezala eskatzea bezala da, eta horrek sobera gainditzen du Batzorde honi esleitutako hauteskunde-egintzen funtzio berrikuslea, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuan zehazten den moduan.

Hauteskunde Batzordeak betekizun hori dagozkion terminoetan betetzen zen ala ez egiaztatu ez duela eta kirol-klub eta kirol-elkarte batzuek IFZ hautesle-errola egin ostean bereganatu dutela onartu ostean –Hauteskunde Batzordeak egoera hori onartu du, modu inplizituan edo tazituan, edo ez du ukatzen behintzat–, Bizkaiko lurraldeko federazioaren kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuko hautesle-errola berriz baliogabetzea ondorioztatu da.

Eta Hauteskunde Batzordearen ardura izango da, eskusiboki organo horri dagokion eskumena izateagatik, hautesle-errola berri bat onartzea,



ebazpen honetan aipatzen diren baldintzen arabera izango dena eta pertsona juridikoak hautesle-eroldan inskribatu ahal izateko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren egingo dena.

**Zortzigarrena.**- Errekurtsogileak ez du partekatzen Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzardeak egindako interpretazioa eta aplikazioa hauteskunde-ekitaldiak mantentzeko dagokionez. Gainera, 2012ko otsailaren 19ko Aginduak printzipio hori jasotzen du 33.7 artikuluan, eta honako hau dio: «*Halako ekintza batzuk baliogabetuz gero, bere horretan mantenduko dira irregulartasuna bete ez balitz ere bere edukiaz berdin-berdin garatuko ziren ekintzak eta izapideak*».

Alderdi errekurtsogilearen arabera, ezin da ulertu erroldaren zuzenketak hauteskunde-prozesuko ondoz ondoko faseen osotasunean eragiten ez duenik; aitzitik, hauteskunde-prozesuan atzera egiteak gero egindako guztia errepikarazten duela ulertzen du, are gehiago federazio-organoen hauteskundeek behar bezala osatuta egon behar dutela kontuan hartuta, Hauteskunde Batzardeak egiaztatu ez duen alderdia.

Hala da, egintzak mantentzearen printzipioa funtsezko printzipioa da hauteskunde arloan eta, jakina, aplikatu beharrekoa da federazioko hauteskunde-prozesuetako hauteskunde-egintzaren bat baliogabetzat jotzen bada.

Zentzu horretan, Batzarde honek onartutako ebazpenetan, hautesle-errola baliogabetzeaz gain, Bizkaiko lurraldeko federazioaren Hauteskunde Batzardearen honako betebeharrak hau jasotzen zen oinarri juridikoetan: «*beharrezko akordioak hartu beharko dira hauteskunde-prozesua akordio honetan jasotakoarekin bat etorritz gara dadin, hala badagokio, baliogabetasun-*





*adierazpen honek eragiten ez dituen hauteskunde-egintzak bere horretan mantenduz».*

Horrela, bada, gogora dezagun Hauteskunde Batzordearen abenduaren 2ko Ebazpenean zentzu horretan adostu zena (beltzez eta azpimarratuta daudenak gureak dira):

*«Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenarekin bat etorriz, hautesle-errolda berriz argitaratzea erabaki da, kirol-elkarteen eta kirol-kluben erregistro-zenbakia eta IFZ barne.*

*(...).*

*Horregatik, hautesle-errolda argitaratu da, adierazitako terminoetan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak aintzat hartuta, eta betiere Bizkaiko Foru Aldundiak finkatutako terminoetan. Horrela, bada, bost egun naturaleko epea finkatu da kasuan kasuko inpugnazioak aurkezteko, hark egindako aldaketei dagokienez bakarrik, eta ez bere momentuan egin behar liratekeenei dagokienez.*

**Hori kontuan hartuta, haren behin betiko onespenerako hauteskunde-prozesu osoa edo zati bat errepikatu beharra erabaki beharko da.**

*Ebazpen horren kontra, errekurtsua jarri ahal izango da, Hauteskunde Batzordearen aurrean eta bi egun balioduneko epean».*

Bere alegazioetan, Hauteskunde Batzordeak ez du inolako informaziorik eskaini kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuen errolda aldatu izanak hauteskunde-prozesuko hurrengo faseetan eragin dituen ondorioei dagokienez.



Ez dakigu isiltasun horrek zeri erantzuten dion, hau da, errekursoaren alegazioei kontra egiteko ezer ez duela edo, besterik gabe, Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-prozesuaren ondorengo izapideak ez aldatzea erabaki duen; izan ere, hori argi eta garbi adierazi beharko litzateke 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena onartu zuenean.

Izan ere, kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuen erroldak hainbat aldaketa jasan dituela kontuan hartuta (6 klub estamentu horren erroldatik kanpo geratu dira, eta, horiez gain, hauteskunde-prozesua abiaraztean, hau da, errolda egin aurretik IFZrik ez zuten pertsona juridikoak kanporatu beharko dira), horrek hautesle eta hautagarrien zerrenda aldatzen du.

Horrek eragina izan behar du hauteskunde-prozesuaren hurrengo faseetan eta Batzar Nagusiaren osaeran, eta, beraz, Hauteskunde Batzordearen ebazpena ezin da baliozkotzat eman, hark hauteskunde-prozesu osoa edo zati bat errepikatzeko erabakia atzeratzen baitu; izan ere, hauteskunde-prozesua errepikatu egin behar da, zati batean gutxienez.

Azken batean, Hauteskunde Batzordeak egiten duen hauteskunde-egintzak mantentzeko printzipioa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko errekursoa kontuan hartu behar da, Euskal Ehiza Federazioak bere alegazio-idazkian adierazten duen moduan, «*Kasu zehatz honetan, eta kasuan kasuko hautesle-errolda behin betiko egin ostean, horrek hurrengo hauteskunde-egintzei eragiten baitie eta ez baitira irmo bihurtzen, are gehiago, errolda hori eratzeko orduan, bertan txertatutako hautesleek horretarako eskubidea dutela jasotzen duten benetako bermeak betetzen ari ez direla kontuan hartuta*».

**Bederatzigarrena**.- Amaitzeko, Batzorde honek Euskal Ehiza Batzordeak gehitutako beste alderdi bat baloratu behar du, Hauteskunde Batzordeak bere borondatea adierazi behar duen moduari dagokionez. Euskal



federazioak Hauteskunde Batzardearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenaren erabateko deuseztapena jasotzen du, ebazpen horretan ez baita jasotzen Hauteskunde Batzardearen osaera, ezta hura onartzen duen bozketaren emaitza ere, eta bertaratuek ere ez dute hura sinatu.

2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 15. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, Hauteskunde Batzardearen erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Horrez gain, Agindu beraren 17. artikulua Hauteskunde Batzardearen saio bakoitzaren akta egin beharra jasotzen du, eta akta hori bildutako kide guztiek izenpetu beharko dute.

Dena den, 2016ko abenduaren 2ko Ebazpena ez da Hauteskunde Batzardearen saioaren akta, hauteskunde-organoko lehendakariak organoaren izenean egindako adierazpena baizik. Hura aktan jasota dagoela suposatzen da, baita saioan nor izan diren eta akordio hori eskatutako gehiengoarekin onartzeko egin diren bozketen emaitzak ere; hala suposatzen dela diogu, baina, egiaz, Hauteskunde Batzardeak bere alegazio-idazkian ez du gaineratu 2016ko abenduaren 2an egindako saioaren akta.

Nolanahi ere, aztertzen ari garen errekurtsioan planteatu ez den alderdia dela eta errekurtsogilearen izaera ez duen hirugarren interesdun batek eragin duela aintzat hartuta, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua aplikatuz, erabateko deuseztapena aitortu lezaketen alderdiak frogatzen ez direnez (egintza horiek ez dituzte betetzen organo partaidetuen borondatea osatzeko funtsezko arauak barne hartzen dituzten arauak), ez da baliogabetzea erabakiko, Euskal Ehiza Federazioak aipatutako arrazoiak direla eta.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak, honako hau



## EBAZTEN DU

████████████████████ andreak, Aspurubegi Kirol Klub Olinpikoaren lehendakari gisa aurkeztutako errekurtsua partzialki onartzea, 2016ko abenduaren 5ean Bizkaiko Ehiza Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenaren kontra jarritako errekurtsua baliogabetzearen kontrakoa. Haren arabera, honako hau adierazi da:

1) Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-prozesuko kirol-kluben eta kirol-elkarteen estamentuko hautesle-errolda baliogabetzen da.

2) Hauteskunde Batzordearen 2016ko abenduaren 2ko Ebazpenean egiten den egintzak mantentzeko printzipioaren aplikazioa antolamendu juridikoaren kontrakotzat aitortzen da.

3) Gainerako eskabideetan errekurtsua ezetsi egiten da.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsu-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.



Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a.

**JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**  
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea